

Gazte-truk

Ni Ana naiz. 18 urte ditut. Herriko gazte bati sukaldeko entxufe bat konpondu diot, eta berak niri txokolatezko galletak egin dizkit. Oso sukaldari ona da!

Laia naiz eta 17 urte ditut. Bizilaguna oporretara joan da, eta egun horietan nik ureztatu dizkiot landareak. Bizilagunak, trukean, masaje bat eman dit lepoan. Orain, askoz hobeto nago!

Ni Jorge naiz. Fisioterapeuta eta bidaiazalea naiz. Orain dela gutxi, oporretan izan naiz, eta bizilagunak ureztatu dizkit landareak. Bizilagunak ez dauka lepoa ondo, eta, trukean, masaje bat eman diot.

Marcos naiz. Sukaldeko entxufe bat apurtu zait, eta neska gazte batek konpondu dit. Nik trukean txokolatezko galletak egin dizkiot. Zer ondo! Asko gustatu zaizkio!

Gu Pablo eta Irene gara. Nik 20 urte ditut eta Pablok 22. Ikaskide batek istripu bat izan du eta hanka apurtu du. Guk egin dizkiogu hileko erosketak. Ikaskideak guri ilea moztu digu trukean. Oso guapo gaude orain!

Lander naiz. 20 urte ditut. Asteburuan hanka apurtu dut eta ikaskide batzuek erosketak egin dizkidate. Nik, trukean, ilea moztu diet. Oso ona naiz guraizeekin!